



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Unibertsitate eta Ikerketa
Sailburuordetza
Zientzia Politikarako Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Universidades
e Investigación
Dirección de Política Científica

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen 2014ko abenduak 17ko EBAZPENA, 2014-2015 ikasturtean doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak berriak ebazten dituen.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren 2014ko uztailaren 1eko Aginduak, 2014-2015 ikasturtean doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programako bekak berritzeko eta laguntza berriak emateko prozesua arautu eta deitu zituen.

Agindu horren 32. artikulua arabera, laguntzak ematea edo ukatzea Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordearen ebazpen bakar eta espresuaren bidez gauzatu da, ebaluazio-batzordearen ebazpen-proposamena aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, eta kontuan hartuta berriazko aholku batzordeen ebaluazioa eta ebaluazio-batzordeak helarazitako proposamena

EBATZI DUT:

Lehena.- I. eranskinean agertzen diren onuradunei ematea doktore ez diren ikertzaileak prestatzeko doktoretza-aurreko programarako dirulaguntzak 2014-2015 ikasturterako, jaso behar duten ordainsari gordina, ezarpen zentroa eta horiek lan kontratuak finantzatzeko beharreko zenbatekoa adieraziz, 2014ko uztailaren 1eko Aginduak xedatutakoaren arabera.

Kontratuak 2015eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte bitartekoak izango dira.

Bigarrena.- II. eranskinean agertzen den ordezkoren zerrenda ezartzea, lerroak, arloak eta lehenetsunaren arabera zehaztuz. Hutsuneak gertatuz gero, hauek 32. artikuluko 7. atalak zehazten duen bezala beteko dira

Hirugarrena.- III. eranskinean agertzen diren ez onartutako eskatzaileen eskaera zerrenda onartzea, ez onartzearen arrazoiak zehaztuz

Laugarrena.- IV. eranskinean aukeratze-prozesutik kanpo gelditu diren pertsonen zerrenda onartzea, kanpo geratzearen arrazoiak zehaztuz

Bostgarrena.- 2014ko uztailaren 1eko aginduak xedatutakoaren arabera erabakiko dira dirulaguntza horien zenbatekoa, iraupena, ordaintzeko era eta jasotzeko gainontzeko baldintzak. Ikertzaile onuradun bakoitzak jasoko duen diru-laguntza dagokion eranskinean ageri da.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Interesatuak Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuari gorako errekurtoa jarri ahal izango diote administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, www.euskadi.net egoitza elektronikoaren iragarki-taulan argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko abenduak 17a

Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordea
ITZIAR ALCORTA IDIÁQUEZ